

## Kanalak

Gure produktuak eskuratzeko kontsumitzaileak hurrengo bide izango ditu: Zuzenekoa, Azokak, Dendak, Internet.

### Zuzeneko salmenta

Gure salmenta txokoa

Urteko Produktuak ekoizteko lokal bat daukagu lurretan, hau herri barruan dago, hau aprobetxatuz produktuen erakus-txoko bat antolatu eta bezeroei bertan erosteko aukera emango diegu. Lanean gauden bitartean aurrez-aurreko harremana eskainiko dugu.

### Azokak

Urteko egun berezietan antolatzen diren azoketan postua jarriko dugu. San Blas, Santo Tomas, Gernikako urriko azken astelehena... Produktua ezagutarazteko eta bezero berriak lortzeko lagungarri izan daiteke.

### Denda bidezko salmenta

Herrietako denda txikietan eta ertainetan eskuratu ahal izango dituzte, hau da, salerosketak txikizkarietan bultzatuz.



### Internet bidezko salmenta

Gaur egun, gero eta gehiago internet bidez egiten dira erosketak, arlo honetan ez gara zaharkituta geldituko. Web orrialde bat sortuko dugu, bertan gure proiektuaren garapena aurkezteaz gain, erosteko aukera ere izango dute. Etxetik egindako eskaera hauek gutxieneko prezioa izan beharko dute bidalketa egiteko.